



## LAN TALDEAREN BILERA

**DATA:** 2015-04-21

**BILERA ZENBAKIA:** 19

**ORDUA ETA LEKUA:** Udaletxean 19,00tan

**PARTEHARTZAILEAK:** 5 emakume eta gizonezko 1

## EGINDAKO LANAREN LABURPENA

### LANDUTAKO GAI ORDENA

1. **TIPI TAPA:** Itsasondo herri txikiegia dela argudiatuta Tipi Tapa programan ez omen da sartzan, baina Ongizate taldetik, modu xumeago batean bada ere martxan jartzeko erabakia hartu dugu. Mediku eta herizainarekin hitzegin ostean, beraiei ere ideia ona iruditu zaie eta bilerara jubilatuta elkarteko bi ordezkari azaldu direnez, programa martxan jartzeko zenbait erabaki hartu dira:
  - Ekimena ezagutarazteko diptiko bat egitea, Itsasondoko maparekin eta bertan 4 ibilbide markatuz.
  - Ibilaldiak asteartetan 17:00tan izango dira.
  - Hasiera batean, ekimen martxan jarzteko, egutegian 10 egun markatuko dira.
  - Egun guztietan egongo da "sorpresa" moduan opariren bat. Opari hoiek zehazteke geratu dira.
  - Ekimenari hasiera emateko, medikuaren hitzaldiren bat aprobetxatuko da, ibiltzearen onurak azpimarratuko dituena.
2. **DENBORAREN BANKUA:** Maiatzeko lan taldean lantzeko geratu da.
3. **HAZKUNTZA TALDEA (crianza):** Ekimen hau ere modu xume batean baina martxan jartzea erabaki da. Mainerrek hartuko du taldea martxan jartzearen ardura, eta momenturik egokiena Irailetik aurrera izango dela erabaki da. Ekaineko aldizkarian artikuloa idatziko duela geratu da, herrian zabaldu eta taldearen nondik norakoak azaltzeko.
4. **PARTEHARTZEA:** Apirilak 29an izango den partehartze prozesurako ekarpenak jasotzeko tartean Ongizate lan taldetik zenbait ideia atera dira :
  - Etxe kaleratzeei aurre nola egin? Eskualde mailan dauden etxe bizitza hutsen diagnostika egin eta irtenbidea eman; alokairuak, emergentzia etxe bezela erabili...
  - Adin txikikoen babesa mermatu
  - Eskualde mailan, batez ere herri txikietan, "osasun" zerbitzuak aberastu; podologoa, psikologoa, emagina... hilean behin edo bitan zerbitzua eskainiko dela bermatu.



- Denboraren bankua martxan jarriko duen teknikaria.
5. INDARKERIA MATXISTA: protokoloa pasa zaie emailaz lan taldeko kideei eta kopia bat inprimituta ere utzi da bilera gelan.
  6. BIZIKIDETZA LANTZEKO BAKETIK-EKO PROPOSAMENA : gaia lantzeko ez du denbora eman baina gainerik Baketik-etik bidalitako adibideak aipatu dira eta maiatzeko bileran sakonago aztertzeke geratu gara. Ala ere ekimen hoiek egiteko aipatzen diren Eusko Jaurlaritzaren « Elkarrekin bonoak » eskuratzeak lehentasuna izan beharko duela erabaki da.

| ETXEKO- LANAK   | NOIZKO? | ZEINEK? |
|---|---------|---------|
| Tipi_tapa programari hasiera emateko materiala prestatu (diptikoa, ibilbideak...) | Maiatza | Erkuden |
| Legorretan jarri duten desfibriladorearen inguruko informazioa eskuratu           | Maiatza | Jabi    |
|   |         |         |

**HURRENGO BILERA**

**Hurrengo bilera, Maiatzaren 19ean egingo dugu, asteartea arratsaldeko 7tan Udaletxean.**

Gai ordena:

- Bendoraren bankua programa bideratzen hasi.
- Tipi\_tapa programa...
- Itsasondon desfibriladorea jartzeko asmoa aztertu.
- Baketik proposamenak...
- Dokumentalen balorazioa eta jarraipena bai edo ez.
- Elikagai bankuko "arazoak".